

HAMABOSTEKARIA 153. zenbakia 1999ko otsailak 12

GOIERRITARRA



Taberna kulturalak



**Ezkontza erreportaiak
%25eko
DESKONTUAREKIN**



Errebelatuetan
kalitate onena

ARESO kalea, 7 ☎ 943 88 96 86 **LAZKAO ARGAZKI**

SAN BALENTIN



*Lore apainketa
mota guztiak
egiten dira*

- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa
Larunbat arratsaldeetan zabalik

**SAN BALENTINETAKO
AUKERA ZABALA!**

☎ 943 88 98 83 Geltokiko kioskoa
ORDIZIA



Yañez

**BITXIDENDA
ERLOJUTEGIA**

Kalitatezko bitxigileak

Prezio egokiak

Aukera zabala

*Gure artikulu guztiak dohain
grabatzon ditugu*

Nagusia, 22 ☎ 943 88 04 99 BEASAIN



**LUBERRI
Loradenda**

- ★ Lore sortak
- ★ Lore lehorren zentruak
- ★ Opariak
- ★ Ezkontzetako sorta eta apaingarriak

**J.M. Barandiaran Plaza, 3
☎ 943 16 04 79 ORDIZIA**



NEGUERUELA

**BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA**

☎ 943 16 08 30
**Hirigoien, 12
LAZKAO**

Garmendia
Bitxitegia

Maiteminduentzako bitxiak

Kale Nagusia, 18

☎ 943 88 15 32

BEASAIN



izadia
Loradenda

- ★ Ezkontzak.
- ★ Lore-konposizioak.
- ★ Koroak.
- ★ Etxe-sarrerak eta bulegoak.
- ★ Lorategi proiektuak.

San Inazio, 11 ☎ 943 88 14 40 BEASAIN



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

*Maitasuneg
betetako
opariak*

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
 Goierriarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
 Ane Martin, Loinaz Agirre eta
 Estitu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
 kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
 Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
 Jon Ordoñez, Joseba Etxezarreta,
 Edurne Albizu, Josune Amondarain,
 Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga,
 Patxi Telleria eta Jakoba
 Errekondo.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
 (Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
 gain hartzen derrigorrez, aldiz-
 karian adierazitako esanen eta
 iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN


Madrilgo Nazioarteko Turismo azokan (Fitur) Goierri eskualdeak bere stand izan zuen urtarrilaren 27tik 31ra. EAEko sailaren barruan egon zen kokatua Goierri. Bertan, turismo munduko profesionalekin harremanak izan dituzte eta emaitzak hasi dira ikusten dagoeneko. Esaterako, 'España desconocida' aldizkari espezializatuak Goierri lekua eskaini dio Gipuzkoa atalean eta Tivoli turismo agentziak ere Goierriko bisitak eskainiko ditu.

Nikolas Osinalde, Goieki-ko teknikariak adierazi digunez ordea, profesionalekin baino herritar arruntarekin lan gehiago egiten dute horrelako azoketan. Jendeak nekazal-turismo, mendi-ibilbide, Santiagoko bide, sagardotegi eta gastronomiari buruzko informazioa jaso nahi izaten du. Arteari buruzko informazioa ere eskatzen dute tarteka. Horretarako Goierri buruzko 23 foileto eraman dituzte Madrilera. Kataluniako azoketan ere izaten dira eta Nikolasek esan digunez, kataleneraz itzuliko dituzte hainbat foileto.

Ume txikiak dituzten familia gazteak etortzen dira batez

ere Goierri bisitatzera; 30-35 urtekoak, Madril eta Kataluniakoak. Bikoteak ere bai, mendira joan edo mendi bizikletan ibiltzera. Lasaitasun bila etortzen den jendea da. "Gero eta jende gehiago ari da turismo berdea egiten. Benidormen eta horrelako lekuetan asko ari da jaisten turismoa. Euskal Herrira turismoa egitera datorren jendea, gero eta gutxiago gelditzen da itsasaldean bi egun baino gehiago, barrualdera sartzen da. Aldatzen ari da filosofia", esan digu Nikolasek. ETAre su-etenaren ondotik Castilla aldeko jende gehiago ere ba omen dator hona. Hori bai, momentu honetan Goierri duen hutsunerik handiena alomendu arloan du eta turismo eskaintza mugatua du.

Urtean zehar 12 turismo azoketan izango dira Goieki-koak eta turismo eskaintza zabaltzen joango dira piskanaka. Mendiko bizikletako ibilbideen liburuxka kaleratuko dute apirila aldean eta Segurako Aste Santurako ekintza bereziak ere antolatuko dira. Beste asmo bat ere badute aurtengorako: Goierriko turismo ekimenen zentrua (Cit) sortzea.

BOTA BERTSOA


Jon Agirre

Txakurak

Doinua: Mutil koskor bat.

Txakurren alde hitzegiteko dauzkat arrazoi sakonak lixkar gehiegi azaleratu du ezbehar baten sonak urte luzetan gure alboan laguntzeko prest egonake ez ote ditu gauz askon gixan madarikatu gizonak gure lagunik onenantzako ez gera hain lagun onak.

Txakur gaiztoak badirala ta ezin gaitezke harritu arriskuan non eta noiz gauden behar degu konprenditu hiru arraza dira okerrak baina ez inor larritu inoiz aurrean bat jarritz gero begiak lurrerantz bitu ta ihes egin ziztu bizian bi hanka baldin baditu.

*Eusko Jaularitza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria


GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Lazkaoko Esparru elkartean hogeita hamar urte inguru hontan jarraitzen den ohitura denez, geroxeago hasiak Domarda, Gerriko eta Lartxai, orain lau hauetan ospatzen da. Ezagutu eta mundu hori piska bat bizi izan dugunok sagardoz ezpainak bustiz, tripak preskatuz lagunarte eder bat pasatzea zer den badakigu.

Hau ezagutzeko zoririk izan ez duenik, irakurleen artean balego egoki iruditzen zaigu barrikote baten aurkezpena egitea eta hor dijoa alde-aldera alkartearen kabida bazkide kopurun araberan ehun litro inguruko barrika ibili ohi da, almatzen edo leku erdi ilun, baztartxo baten lau egurren gainean kokaturik, sagardogileak hasten dire-

Barrikotea

nean bete eta txiritik dastatuz noiz zuloa tapatu eta edateko moduan zein as-teburuetako jarriko den erabakia hartzeko, honela bazkide eta lagunei iragarri eta ospatzeko.

Sagardoa edari, bakailoa janari eta intxaurra postrean, barrika hustu samartu denerako ez da falta izaten kantu eta kontu, soinu eta bertso eta txisterik inor ez da egoten tristerik.

Urte batean Gerriko elkartean kantatu nituen bertsoak hor dijoazkizue zintan hartuak izan baitziren.

Umore alditxo bat behar degu ospatu bakailoa jan eta sagardoz preskatu ondo jarri gera ta gu ezin kezkatu isiltasun piska bat nahi nuke eskatu.

Hustu degu barrika hustu da kupela hemen jarria zaigu hain giro epela sukaldari jendea ez degu motela janak eta edanak on deigutela.

Hemen hustu ditugu ehun litro edari ikusi gabe nengon hoinbeste mirari bakailoa jarri da sagardoz irari balantza egin baina ezgaizan erori.

Barrikatik lenengo bete da txarrua ta handikan basora ondoren txorrua poliki eta suabe sartu deu barrua mozkortzen bagerare gaur ez da errua.

Gora Euskadiko hain mama goxua pozikan edan degu beterik basua kontatu beharren gaude holako kasua uste gabe hustu da barrika osua.

Janen eta edanen ein deu inala garbi ezaguna zan premian ginala orain hustu beharra nola edo hala baezpada gauean eraman oinala.



Patxi Telleria



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



☎ 943 88 55 00 ORDIZIA



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
 - ✓ Eguneroko menua 800 pta.
 - ✓ Udaberrian terraza zerbitzua
- Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15



Jakoba Errekondo

Urte-sasoi hau zuhaitz eta arbolak landatzeko garairik aproposena da. Landare guztiak ez dira orain landatzen, baina gehienak bai.

Neguan hostoa galtzen duten landare guztiak orain landatu daitezke, bai basokoak, haritza, pagoa, lizarra, astigarra, haltza, etab. baita frutarbolak sagarrondoa, udareondoa, aranondoa, muxikondoa, gaztainondoa, intxaurrondoa, gereziandoa, kiwia, etab. Neguko geldialdian landatuz ez dute hainbeste sufritzen, udaberria laister etorriko denez izerdiarekin sustrai berriak bota eta erraz itsatsiko baitira.

Neguan hostorik galtzen ez duten landareak, artea, erramua edo hereinoa, mimosa, korostia, pinuak, albizifreak, sekuoia, etab. gerorxeago landatu behar dira.

Martxoaz gero, behin lurra berotzen hasten denean mugitu behar dira. Hauek beste urte-garai bat ere badute landatzeko, udazkenaren azkena, lurra oraindik hoztu ez denean, alegia. Udaberrikoa, hala ere, hobea da.

Landaketa egin behar denean aurrez jakitea komeni dena:

- Zuloak denbora dezente lehenago eginda edukitzea komeni da. Hartaka neguko hotzekin lurra xehetu egingo da eta landarea errezago itsatsiko da.
- Landaketa egiterakoan lurrari simaurra nahastu nahi izanez gero, hondutako simaur zaharra izatea nahi eta nahiezkoa da. Eskuera dugun simaurra berria bada, landaketa egin ondoren lurgainean, landarearen bueltan enborra ikuitzen ez duela zabalitzea askoz ere hobea da.
- Landatu behar dugun landarea tajuz aukeratu.

Gehienetan landarea garrantia handirik gabe erosten da. Batetik gaitzik gabeko landarea izan behar du. Bestetik, guk nahi dugun barietatea dela ziurtatu behar digute. Urte asko behar izaten dira frutarbolak fruitua emateko eta orduan erreklamazioarekin periara joatea alferrik da; guk nahi ez genuen landarea edukiko dugu eta makina bat urtetako lana galduko dugu.

- Txertatutako landarea behar badugu zein mentu-oinaren gainean txertatua den jakitea garrantzitsua da. Honen arabera batetik bestera zenbaterainoko tartea utzi behar den jakingu dugu, mentu-oinak lotzen baitu landare horrek izango duen tamaina. Adibidez errezil-sagarra baxakan (frankoan) txertatuta 7 metro ingurukoa egingo da, baina 3 metrokoa izan daiteke beste mentu-oin baten gainean txerta-

tua bada.

- Gaztainondoa landatzeko asmoa badugu nahi eta nahiez txertatutakoa izan behar du, bestela konturatu ordurako gaitzak harapatuko baitu. Iparraldean izugarri dakite honi buruz eta Euskal Herria eta Europako gaztainondo txertatu onenak egin eta saltzen dituzte.
- Buztina dagoen lurtean honoko hauek ez landatu: gereziandoa, intxaurrondoa, aranondoa, abrikotondoa eta muxikondoa. Busti-lehorrean buztinak zabaldu eta trinkotzen denean sustraiak hausten baitizkie landare hauei. Buztin lurtean gehienez ere etxe ondoan landatu etxe azpiko lehoruneari esker biziko baitira. Esaerak hala dio: "intxaurrondoak etxeke errietak entzun behar ditu". Intxaurrondoa, hala ere, buztin lurtean landa daiteke, baldin eta intxaur beltzaren gainean txertatua bada.

Komunikazioan...



Banatzaile ofiziala:

Movistar

Bila zabiltzana...

badaukagu

Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89 - www.movitel.com - Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 25, 'Rompiendo las olas', 21:00etan, Usurbe antzokian. Ikus koadroa.

ORDIZIA:

'Más fuerte que su destino', Ostirala 12: 22:15, larunbata 13: 19:30 - 22:15.

'El milagro de P. Tinto', Igandea 14: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30

BEASAIN:

'Practicamente magia', Larunbata 13: 19:30 - 22:15; igandea 14: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 15: 19:30-22:15.

'Rompiendo las olas'

Lars Von Trier
(Danimarka, 1995)

Lars Von Trier danimarkararren bosgarren filma da 'Rompiendo las olas'. Eskoziako kostaldean giroturiko maitasun-istorioa da, azken finean, Von Trierrek planteatzen diguna, baina ohiko maitasun istorioekin batere zerikusirik ez duena. Garritza eta gogorra da filma, eta ikusleak nekez ahaztuko du Bess gaixoak pairatzen duen egoera latza. Bess, familia kalbinista baten alaba, Jan izeneko olio plataforma bateko langile batekin maitemintzen da. Ezkondu eta berehala Janek plataformara itzuli beharko du eta Bess bere zain geldituko da.

ANTZERKIA



BEASAIN:

Otsailak 12, 'Maria Sarmiento' antzezlan, Teatro El Cruce konpainiaren eskutik, Usurbe Antzokian, 22:15ean. Antzerki garaia-
ren barruan.

ORDIZIA:

Otsailak 26, 'Lourviers Story', Lourviers taldearen eskutik, Herri Antzokian, 22:15ean. Antzerki garaia-
ren barruan.

DANTZAK

BEASAIN:

Otsailak 13, Inauterietako dantzak, Ostadar dantza taldeak antolatuta, herriko kaleetan zehar, 12:00etan eta 18:30ean.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Otsailaren 26ra arte, Aterpe Pintura lehiaketako irabazle guztien lanak ikusgai, Aterpe Tabernan.

Otsailean zehar, Zinema taberna: 'Hiru belaunaldi' izenburupean, Feliciano, Victoriano eta Fernando Laborderen argazkiak izango dira ikusgai, Zinema tabernan.

Otsailaren 19tik 28ra arte, Jabier Merkaderren zera-



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreto, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN



MUJKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

KONTSULTORIO MEDIKU KIRURGIKOA

25 URTE goierritarrei mediku zerbitzu
espezializatu onenak eskaintzen

J.A. Lasa	Kardiologia	C. Poveda	Anatomia patologiako
J. Alzua	Nerbio eritasunak	R. Lopez	Lan, kirol... istripu
F. Arrue	Barne medikuntza	R. Garate	sorospen zerbitzua
	Liseri aparatua	M. Ansa	
P. Arrue	Urologia	A. Ubarretxena	Radiologia
B. Aseginolaza	Dermatologia		Ekografia orokorra
A. L. de Goikoetxea	Reumatologia		Ekografia ginekologikoa
	Medikuntza orokorra		Zain eta giharre ekografia
R. Orus	Medikuntza orokorra		Titi ekografia, etab.
J. Igartua	Otorrinolaringologoa	I. Larruskain	Analisi klinikoak
V. Ormaetxea	Pediatra	J. D. Gisasola	Errehabilitazioa
R. Ayllon	Ginekologoa	A. Perez	Errehabilitazioa
M. Garcia	Ginekologia	L. Azpiroz	A.T.S.
M. Ruibal	Neurologia		Azterketa Medikoak
L. Berdejo	Kirurgia		entrepresentzako
A. Galvany	Kirurgia		seguruentzako. etab.
A. Telleria	Dietetika-Elikadura		Txekeo, araketak

Nafarroa etorbidea, 25-2 - BEASAIN - Tel: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

mika erakusketa, Usurbe Antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 19tik martxoaren 18ra bitartean, Nisa Goibururen pintura erakusketa Barrena Kultur etxean.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Otsailak 14, Uzturrera eta Tolosara.

Otsailak 21, Lizarrusti-Beasain.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Eskiatzeko botak salgai. 38 zenbakia. Bi txamarrara ere bai. Bat antezkoa eta bestea larruzko beltza. 943 886221.

☐ Nad eta Sony anplifikadore eta irratia salgai. 943 887313.

☐ Opel Calibra, SS-AJ, kotxea salgai. 119.000 kilometroekin. Egoera onean. 943 883361. Gaez deitu.

☐ Ford Fiesta salgai, SS-AM. 943 881038. 18:30etik aurrera.

☐ Idazmakina salgai. Koldo. 943 882047.

☐ Kotxeko irratia kasetea salgai: 6.200 RDS erdua, 12 konpak diskeko kargadora, lau altaboz, 130 w, hiru biotakoak. Denak Pio-

neer markakoak eta egoera onean. Guztia 100.000 pezetan. Mikel. 943 885883.

☐ Esne tankea salgai, 150 litrokoa. Gutxi erabilia. 943 887737. Arratsaldeko 8etatik aurrera deitu.

☐ Babarrun beltzak salgai. 943 881802.

☐ Enziklopedia salgai, 9 aleduna. Gaiak: familia eta medizina, belar medizinalak, drogak: ezagutu eta prebenitu. Gaixotasun askoren prebentziorako ezin hobe. 943 80 63 64.

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Beasaingo Kale Nagusia. Handia eta berritua. 943 880523. Gaez deitu.

URTARRILEAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Oroituz**
Jon Arretxe (Elkar)
- 2- **Hautsa eta maitemina**
Joan Mari Irigoien (Elkar)
- 3- **Bambulo**
Bernardo Atxaga (Erein)
- 4- **Koaderno gorria**
Arantxa Urretabizkaia (Erein)
- 5- **Tren eroa metroan**
Josu Lartategi (Aizkorri)

DISKOAK:

- 1- **Benito Lertxundi E.O.S.**
'Auhena sinfonikoa' (Elkar)
- 2- **Kepa Junkera**
'Bilbao 00:00 h' (Resistencia)
- 3- **Kaos etiliko**
'No hay agua' (Gor)
- 4- **Juan Carlos Irizar**
'Oroimenaren lorratzak' (Hilargi)
- 5- **La Polla Records**
'La polla en turecto' (Gor)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Otsailak 13-14: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943880232.

Otsailak 27-28: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943880152.

Neurri neurriko telefono mugikorra

Zure beharrentzako aukera zabala eskeintzen dizugu

- "Contrato Exacto" segundukako tarifekin.
- "Contrato Próxima" probintzi barruko deientzako.
- Emprezentako konponbideak.

Orain **MoviStar** .rekin :

1

6000 pta. arte
deietan doan
(bigarren hilabetetatik aurrera)



1

Esku gabeko kit.a
edo
Bigarren bateria bat,
kargatzailearekin



Banatzailerik ofiziala:
MoviStar

Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89 - www.movitel.com - Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63

Gizarte bazterkeriari aurre egiteko neurriei buruzko jardunaldiak izan dira Beasainen

Urtarrilaren 29an izan ziren 'Gizarte bazterkeriari aurre egiteko G.G.D. eta G.L.L al dira erantzunak' izenburupeko jardunaldiak Beasainen, bertako Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolaturik. Baztertuta dauden pertsonen ematen zaizkien diru laguntzak, bazterkeriaren aurkako borrokarako laguntzak ote diren aztertu zituzten.

III. Jardunaldi hauetan, besteak beste, Antonio Cancelo, Mondragon Korporazio Kooperatibako lehendakariak parte hartu zuen. Gizarte bazterkeria gero eta handiagoa izango dela esan zuen. Karmele Elola teknikariak laburtu digu Cancelok esan zuena: "gizarte bazterkeria konpontzeko irtenbide onena lana bilatzea da. Gaur egun ikusita teknologia berriak eta abar sartzen ari direla, kualifikazio profesional handiagoa eskatzen da. Momentu honetan FP eskatzen bada edozein lanpostuetarako, hemendik 10-15 urtera ikasketa handiagoak eskatuko dira. Beraz, gaur egun baztertuak deitzen diegun pertsonak, erabat baztertuta geldituko dira".



Eusko Jaurlaritzak duela 10 urte arautu zituen baztertuta eta beharrean dauden pertsonen laguntza emateko diru laguntzak. Baina diru laguntzak emateaz gain, lana sortzea eta etxebizitza sozialak sor daitezen bultzatzea ere aurikusten zuen. Karmele Elolak adierazi digunez, INEMa ari da baztertuak lanaren munduan sartuarazteko laguntzak ematen eta ikastaroak antolatzen baina ez omen dira nahikoak. Etxebizitza sozialen inguruan, Beasainen badute epe motzerako egitasmo bat. Ezkiaga auzoan egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzetatik 24-34 sozialak izango dira, oso alokairu merkeekin.

GGD eta GLL laguntzak

Baztertuta dauden artean Gizarteratzeko Gutxieneko Diru sarrera (GGD) eta Gizarteratzeko Larrialdietarako laguntzak (GLL) daude.

GGD-ek janaria erosteko laguntza ematen du. GLL-ren kasuan, etxeko alokairua, kreditua ordaintzeko, argia, ura, elektratasnak... ordaintzeko erabiltzen da laguntza.

Iazko datuen arabera, Beasainen GLL laguntzak 41 familiak jaso zituzten; guztira 114 lagunek eta 10.568.390 pezeta gastatu ziren. Laguntza hauek Diputazioak ematen ditu, baina nahikoa ez zela ikusirik, Beasaingo Udalak beste kopuru bat jarri zuen. GGD laguntzak 25 familiak jaso zituzten, 69 pertsonen. 9.713.784 pezeta banatu ziren.

Beasainen kasuan, gero eta lagun gehiago ari dira GGD eta GLL laguntzak jasotzen. "Baina horrek ez du derrigorrean esan nahi, baztertuta daudenik. Batzuk egoera puntual batzuegatik etortzen dira. Lanagatik bakarrik ez dago jendea baztertuta, faktore gehiago ere ba-

daude. Lanik ez duten batzuk erabat integratuta daude. Errekurtso pertsonalik ez duelako egoerari aurre egiteko, ez daukalako kualifikazio profesional bat, familia harremanak ez direlako onak... arrazoi asko izan daitezke. Hori bai, intserzioa lortzeko faktore garrantzitsuena lana izaten da".

Banatzen den diru kopurua ere urtetik urtera handiagoa da. Laguntzak jasotzen dituztenek, ordainagiriaren bidez, justifikatu egin behar izaten dituzte egindako gastuak. "Laguntzak jasotzen dituztenek esaten dutenez, laguntza hauek iraun bizitzeko balio dute. Bizitzeko justu-justu ematen da eta kasu askotan lagunen edo familiarterkoen laguntza behar izaten dute".

Kolektiboak

Jardunaldietako ondorioak ateratzeko daude oraindik, baina Karmele Elolak atera zuen bat, Antonio Cancelok esandakotik. "Kolektiboek lagundu egiten dute gizarteratzen. Once eta Gureak-en kasuak hor daude eta funtzionatu egin dute. Beraien artean antolatzea oso garrantzitsua da, gizartearen indar bat edukitzea delako zerbait eskatzeko orduan. Cancelok esan zuen, baztertuta dauden pertsonak elkartuz gero zerbait egin daitekeela, baina banan-banan ez".

Argitarapen honen editorea: [irudi]

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

Udal Ordezkarien Biltzarra

Otsailaren 6an Iruñean egin zen Udal Ordezkarien Biltzarra sortzeko bilkuran. Goierriko Udalak ordezkatuak izan ziren bertan. Jon Jauregi Beasaingo alkateak gainera, leku berezia izango du biltzar honetako mahai iraunkorreko kidea izango baita beste 9 alkaterekin batera. Biltzar honek nazio eraikuntzan laguntzeko proposamen zehatzak egin eta jarrera homogeenak bultzatuko ditu. Goierritik Iruñara joan ziren udal ordezkariak hauek dira:

Altzaga: Iñaki Mujika eta Olatz Olano independenteak.

Arama: Jon Maties eta Patxi Insausti independenteak.

Ataun: Aitor Auzmendi eta Iñaki Eskisabel indpendenteak eta J.M. Urdangarin HBkoa.

Beasain: EAJko Jon Jauregi eta Patxi Plazaola, EAKo Josi Insausti eta HBko Andoni Antxia.

Ezkio-Itsaso: Mari Isabel Olanga independentea eta HBko Simon Idiakez.

Idiazabal: EAKo Antton Irizar, HBko Tomas Aldasoro eta EAJko Josune Azurmendi.

Itsasondo: HBko J.M. Otegi.

Lazkao: EAJko Iñaki Estensoro, HBko Lourdes Azpiroz eta EAKo Kepa Zubiarra.

Legorreta: EAJko J. Ramon Mugerza, HBko Alaitz Otaegi eta EAKo Pilar Martiarena.

Ordizia: EAJko Juanbi Erauskin eta Jesus Aldaz eta HBko Aitor Garmendia.

Ormaiztegi: EAJko Iñaki Maiora eta Iñaki Galarraga, HBko Mikel Jauregi eta EAKo Mikel Murua.

Segura: EAKo Karmentxu Etxeberria, HBko Rafael Gerriko eta EAJko Pedro M. Agirrezabal.

Zaldibia: HBko J.I. Elizegi eta M.Asun Asurabarrena.

Zegama: EAKo M. Asun Mendizabal eta HBko J.Ramon Agirre.

Zerain: M. Flora Mendizabal independentea.

GOIERRITARRAK arazoak

Azken unean ordenadorea hondatu zitzaigunez, ahal duguna eta bi egin dugu iragarritako datan GOIERRITARRAREN 153. alea ateratzeko. Ohi baino mehexeagoa izango da aldizkaria, atal batzuk kendu egin behar izan ditugu, baina hementxe gaude. Ulerkorrak izango zaretelakoan gaude.

Juanbi Erauskin

Ordiziako alkatea, Juanbi Erauskin, Jaurilaritza be-

rrian, Garraioen Azpiegitura saileko zuzendari kargua hartu du.

CAF-Elhuyar sariak

Bi enpresek antolatzen duten CAF-Elhuyar Dibulgazio Sariaren 5. ekitaldiko sariematea egin zen urtarilaren 29an. 16 lan aurkeztu dira guztira: 14 artikulua eta 2 liburua. Dibulgazio artikuluetan hauek izan dira irabazleak, lehenengotik hirugarrenera: Adelaida Umaran eta Arantxa Sarasua bikotea; Fernando Morillo; eta Asier Sarasua.

11. Korrika prestatzen

Martxoaren 24an pasatuko da Goierritik 11. ekitaldia duen euskararen aldeko Korrika. AEK-k antolatzen du Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ekitaldia. '1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz' leloa izango du aurtengoan. 9 egunez, 2.100 kilometro egingo dira korrikan, Iruñatik abiatu eta Donostiaraino.

Goierriko martxoaren 24an etorriko da. Legorretatik sartuko da. Ibilbide zehatza hau da: Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Lazkao, Beasain, Olaberria, Idiazabal, Segura, Mutiloa, Lierni, Ormaiztegi, Salbatore eta Nuarbe. Guztira 51 kilometro egin beharko dira korrika Goierriko barrera. Orduetegiari dagokionean, 12:33ean ikaztegieta sartuko da eta Nuarbera iluntzeko 19:09etan iritsiko da. Orduetegi dena den, behin-behinekoa da AEK-k jakitera eman duenez. Guztia behar bezala prestatzeko herrietan batzordeak sortu dira ohi bezala.


Ofertak, 99/2/28 .rarte iraunkarrak

"Contrato Próxima"

MoviStar .ekin alta ematean

33 pta/min. Probintzi barnean

10 pta/min. Aste bukaeretan eta gaueko **9** .etatik aurrera.



MoviStar activa

Errezago jartzen dizugu

Kuota nahiz konpromisurik gabe

"MoviStar Activa 4"

MoviStar activa 4 cuatro

25 pta/min. arratsaldeko **4** .etatik aurrera



Banatzale ofiziala:
MoviStar

Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89 - www.movitel.com - Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63

ZEGAMA, SEGURA ETA ZERAINEN ARTEKO MUSIKA PROIEKTUA: Tobera Musika Eskola: lehen, orain eta gero

Eguno Tobera Musika Eskolaren sorreraren aztarna 1990. urtean aurkitzen da; Zegamako gurasoek Zegamako Musika Eskola sortu zutenean. Lu-krorik gabeko elkarte mo-
duan sortu zen, eta izpiritu
berdinarekin jarraitzen du.
Beraz, 1990-91 ikasturtea
da Zegamako Musika Esko-
laren zuzendaritzapean egi-
ten den lehena.

1993-94 ikasturtean, Ze-
raingo ikasleak Zegamako
Musika Eskolan hasten dira
bere musika ikasgaiak har-
tzen. Segurako ikasleek
1996-97 ikasturtean atxeki-
tzen dira Zegamako Musika
Eskolaren proiektura. Ho-
nen ondorioz, 1997ko mar-
txoaren 4an egindako batzar
orokorrean ordurarte inda-
rrean zeuden estatutuak al-
datzea erabaki zen. Geroz-
tik Tobera Musika Eskola
deitzera pasatu zen.

Finantzaketa

Betidanik proiektu musikal
honen finantzaketa mistoa
izan da. Goraipatzekoa da
gurasoek egiten duten aha-
legin ekonomikoa. Aldi be-
rean txalotzekoa da Zega-
ma, Segura eta Zeraingo
udalek eta Eusko Jaurleri-
tzako Hezkuntza Sailak
egin duten eta egiten ari di-
ren ekarpen ekonomikoa.
Beraz, hiru zutabe hauek di-
ra Tobera Musika Eskolaren

sostengu, eta uda-
lerrri hain txikietan
honetako zerbitzu
musikala eskaini-
tzearen arrazoia.

Lokalak eta helbide soziala

Zegama, Segura
eta Zeraingo uda-
lek aipatutako diru
ekarpenaz gain, lo-
kalak uzten dituzte
Tobera Musika Es-
kolako ikasgaiak banatu
ahal izateko. Eta honetaz
gain ere, aipatutako lokalen
mantenimenduaz ardura-
tzen dira, sortzen diren gas-
tuak ordainduz (garbiketa
lanak, berogailua, konpon-
keta lanak eta abar).

Tobera Musika Eskola-
ren helbide soziala Zega-
man dago, estatutuetan ho-
nela jasoa dagoelarik. Hau
guztiz normaltzat hartu be-
har da, proiektu musikala-
ren sortzailea delako, eta
bestalde, ikasle kopuru han-
diena duelako.

Zerbitzu eskaintza

Tobera Musika Eskolak 4
urtetik gorako edonori es-
kaintzen dizkio bere musika
zerbitzuak. Egun eskola-
umeak baldin badira ere,
nagusiki, Musika Eskolako
ikasleak, aurrerantzean es-
kaintza musikala hedatu
egin nahi da, irrika musika-



Marisa Olano, Tobera Musika Eskolako zuzendaria.

la duen edonori. Beharbada
hau izango da hurrengo ur-
teetako erronka eta helbu-
rua. Egun Zegaman 119,
Seguran 42 eta Zerainen 19
ikasle dituzte.

Ikasleen eskaerak kontu-
tan izanik, eta bideragarritasun
ekonomikoaren arabera,
edozein musika ikasgai
eskaintzen du Musika Esko-
lak. Egun eskaintzen ditue-
nak hauek dira: musika hez-
kuntza, akordeoia, pianoa,
txistua, trikitixa, panderoa,
gitarra, saxofoia, klarineta
eta dantza.

Organo erabakitzaileak

Tobera Musika Eskolako
organo erabakitzaileak bi
dira: bazkide guztiek osa-
tzen duten Batzar Orokorra,
eta honen eskumenen artean
daude gai garrantzitsuenen
erabakia; eta bestalde, Zu-
zendaritza Batzordea, gura-

soen 9 ordezkariak
(Udalerrri bakoit-
zak dituen ikasle-
en arabera), 3 uda-
letako ordezkariak,
Musika Eskolako
Zuzendariak eta
ikasketa buruak
osatzen dute. Bere
jarduna esan daite-
ke eguneroko
gaiak aurrera bul-
tatzatzea dela.

Zuzendaritza Ba-
tzordeko partaide-
en aukera demokratikoa da,
honetarako indarrean dau-
den Barne Araudiak jasota-
ko jardunbidea jarraituz.

Helburuak

- Eskaintza musikala za-
baltzea ikasle kopuruan,
ikasgaietan eta baita pertso-
na helduengan ere.
- Musika banda sortzea.
Pazientziaz eta gutxika-gu-
txika egin beharreko lana
da. Gogoratu behar da, da-
goeneko martxan dagoela
akordeoi orkestra.
- Musika gizarteratzea.
- Irakaskuntza musikaleko
eskola serioa, arduratsua eta
erakargarria izatea.
- Egun ematen den zerbi-
tzuaren garrantziaz kon-
tzentziazatzea, eta denak (gu-
raso, ikasle, irakasle eta
udalek) norabide berdinean
bultzatzea.
- Estatutuetan jasotakoak.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

Euskararen orria da honoko txoko hau. Goierrin euskararen alde lanean ari direnen txokoa.

Elkarlanean ari diren Ordiziako euskara taldeek estreinatu dute orria, baina Goierri osora eta goierritar guztiei zabalduta dago. Hilean behin aterako da euskararen orria, eta txoko honetan parte hartu nahi baduzu, denboraz, jarri GOIERRITARRAREKIN harremanetan.



'Ikasi-Makusi'

Euskarazko kultur eskaintza iraunkorra egin asmotan Ordizian euskalgintzan diharduten bost elkarteek IKASI-MAKUSI egitasmoa jarri dute abian.

AEK, Hitzaro, Euskal Herrian Euskaraz, Goierriko Bertso Eskola eta Goierritarrak Kultur Elkartea biltzen dituen proiektua elkarte hauek duela urte bete

hasitako elkarlanbidearen lehen emaitza da.


Hamabostean behin kultur ekintza baten eskaintza egingo da. Aurrerantzean ikastaro, hitzaldi, ikus-entzunezko, kafe-antzerki eta bestelakoak programa bakar eta amankomunean bilduko dira. Hartara egitasmoa bultzatzen duten elkarteek orain artean egin ohi zuten eskaintza sistematizatu egingo da, koordinazio lana hobetu egingo da eta bitartekoak errentabilizatu. Horrek, dudarik ez, eskaintakoen kalitatea hobetu egingo du eta kopuruan gora egingo dute.

Programari joan den astean eman zitzaion hasera, Javier Juanes-en 'Gipuzkoako jaiak: Negua' izenburupeko ikus-entzunezkoaz. Hurrengo ekintza Internet eta Posta elektronikoari buruzko ikastaroa izango da, otsailaren 20 eta 27an burutuko dena.

Txalo

Tarte honek ekimen ezberdinak juzkatuko ditu aurrerantzean. Euskararen aldekoak TXALOTU egingo dira, eta euskarari eraso egin edo euskara kontuan hartu gabe burutzen direnei BELARRITIK TIRADIZOA egingo diegu.

Gaurkoan, IKASI-MAKUSI egitasmoarentzako dira gure txaloak.



Txikitizaro

Otsailaren 6an hasi zuen bere jarduna Hitzaro Euskara Elkartek bultzatu eta Jakintza eta Urdaneta ikastetxeek laguntzen duten Txikitizaro egitasmoak. Sei eta zazpi urteko haurrei zuzendua dago eta aisialdirako euskarazko espazioa eskeintzea du helburu.



"D" ereduaren

"D" ereduaren aldeko kanpainan murgilduta dabil EHE taldea.

Haurrak ofizialak diren bi hizkuntzetan nahikoa gaitasun eskura dezaten ahalbideratzen duen eredu bakarra "D" eredu dela diote eta "A" ereduaren berehalako desagerketa eskatzen dute.



Korrika

Hilaren 22an aurkeztu zuen AEK-k 11. Korrika. Iruñan hasi eta Donostian bukatuko da eta 'Euskara

badator' izango du lelotzat. Goierriko AEK hasi da dogoeneko prestaketa lanekin eta osatu ere osatu dira herrietako batzordeak.



euskarari

Bai euskarari

Arrakastaz burutu da Goierri Kontseiluak bultzatutako euskararen aldeko kanpaina.

Herrietako batzordeek egin duten lanari langile eta lantegiek hartu diote lekukoa orain, martxan baitago jada 'Ordu bat euskararen alde' izeneko egitasmoa.

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

943 88 05 43 BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak
goierritarren zerbitzuan

943 160 120

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

Langile autonomoentzat:

- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak
- ✓ Fakturazioa

Oposaketa prestaketa:

- ✓ Nola landu
- ✓ Test-ak
- ✓ Psikoteknikoa

Informa zaitez!

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ Eskola graduatua
- ✓ Lanbide heziketa
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 25 urtetik gorakoentzat

BEASAINGO ATERPE ETA ZINEMA TABERNAK ETA ORMAIZTEGIKO ITXUNE:

Edaritegi hutsak baino gehiago

Goierrin taberna asko ditugu, baina taberna kulturalak deitu genitzakeenak ez dira hainbeste. Guk hiru adibide hartu ditugu: Beasaingo Aterpe eta Zinema tabernak eta Ormaiztegiako Itxune. Taberna arruntek eskaintzen dituzten zerbitzuez gain, kultura eskaintzen dute. Hirurek norabide ezberdina daramate, baina taberna soila baino gehiago izan nahi dute. Aterpe eta Itxune tabernak ibilbide luzekoak dira. Zinema gogoz eta kemenez hasi berria.

Zinema taberna, Beasaingo Jose Mari Iturriotz kalean

Iñaki Cuellarrek urtebete pasatxo hartu zuen Zinema taberna. Beasain erdian taberna kultural bat egitea izan da Iñakiren betiko asmoa. Tabernaren izenarekin lotura handia dauka tabernaren izaerak. Neurri aldetik txiki samarra izateak hainbat zailtasun sortzen dizkio Iñakiri, baina ekitaldiak neurriira moldatzen ditu.

Orain artean, argazki erakusketak, musika errezitalak, kafe-antzerkia eta laburmetraien emanaldiak antolatu dira Zinema tabernan. Guztietan ere, Goierriko jendea promozionatzea nahi da.

Erakusketei dagokienean, argazki erakusketak egingo ditu batez ere, zinemarekin lotura zuzena daukala argazkiak. Datozen hilabeteetarako ezustekoa ari da prestatzen Iñaki. Aurreratu digu zertxobait: argazkiak eta euskal musikarekin, 70. hamarkadakoarekin, zerikusia daukana izango da.

Kafe-antzerkia eta musika emanaldiak ere izan dira eta izango dira. Musikari dagokionean, Ataungo Banda Popularrereko kideekin ari da lanean. Bereziki Zinema tabernarako prestatzen dituzte saioak. Goierriin entseiatzen duten musikarien plaza izan nahi

du Zinemak. Laburmetraiak ere eskaini ditu. Jon Anduezaren azkeneko laburmetraia esaterako, '4. galeriatik'. "Esklusiboa zen. Baina jende gutxi etorri zen". Beasainen egindako marrazki bizidunak, Palli Aseginolazak egindakoak, ere eman zituen.

Ekitaldi ugari antolatu dira Zineman, baina Iñaki Cuellarrek adierazi digunez, jendearen artean ez dago oraindik honetarako kulturarik. Uste baino erantzun kaxkarragoa jaso dute ekitaldiek.

Artisten erreferentzia puntu izateaz batera, Goierriko informazio orokorra bilduko duen tokia ere izan nahi du Zinemak. Ordenadorea jarri du Goierriko turismo guneen eta kultur ekintzen berri emanez. Iñakik airtortu digunez, hasierako ideia, taberna ireki beharrean, Goierriko turismo informazio bulegoa irekitzea zen. Informazio hori zabaltzeko premia handia ikusten du Iñakik, gero eta jende gehiago etortzen baita Goierriira. Ordenadorea erabiltzen du horretarako eta Goiekirekin harremanetan dago.

Astero egin nahi ditu ekitaldiak, ostiraletan. Baina ez du baztertzan asteko beste egunen batean ere antolatzea.

Taberna zinemarekin lotuta dago, izenak berak dioten bezala. Adibide bat: etxean Iñakik berak zituen zine inguruko aldizkari eta foiletoetako argazkiak hartu eta barraren inguruko horma txukundu du. Musika ere asko zaintzen du Iñakik. Bluesa, jazz...



UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Aterpe taberna Beasaingo Oria pasealekuan

Orain 11 urte ireki zuen Txomin Ferreirak Aterpe taberna Beasaingo Ezkiaga auzoan. 10 urte dira artearekiko, batez ere banguardista, konpromezua hartu zuenetik. Txominek barruan darama artea eta horregatik egin zuen artearen aldeko apustua. Batez ere artista hasi berrien erakusketak jartzen ditu Txominek tabernako paretetan. Zazpigarren edizioa bete duen pintura lehiaketa ere egiten da eta pintore hasberrientzat aukera ona da Aterpe eskaintzen duena. *"Esperientzia polita izan da pinturarena. Jende asko eza-gutu dut. Baina agian, kanpoko pintoreek gehiago estimatzen dute Aterpe taberna, hemen bertakoek baino. Erakusketen harrobia dela esan daiteke Aterpe. Hemen lehenengo erakusketa egin eta orain pintore asko punta-puntan dabil-tza"*, argitu digu Txomin Ferreirak. Pintura lehiaketa iraba-zi duten lanekin erakusketa ikusgai dago otsailaren 26ra arte.

Bezeroen aldetik, kexu samar azaltzen da Aterpekoa. *"Gaur egun ez gara ezergatik hunkitzen, jendeak pasotismo handia dauka"*. Musika errezitalekin ere hasi zen lanean baina ez zen Txominek uste bezain ondo gauzatu. Orain ber-ritz ere errezitak antolatzeke asmotan dago.



Ordizia Beasain baino herri hobea dela esan digu Txomin Ferreirak. *"Beasain denerako da herri hotza; Ordizia hobea da. Ordizia beti herri kezatsuagoa izan da. Barrenako erakusketetara jende asko joaten da. Beasain hiria-go da, eta Ordizia herriagoa. Beasainen eskaparatismo asko dago. Jendeak denetaz pasatzen du"*.

Pintura eta artea bultzatzeaz gain, Ezkiaga auzoa dinamizatzen ere saiatzen da Txomin bere txokotik. Nahiko auzo motela dela esaten du. Iaz auzoko festak ez ziren ospatu baina aurren badauka berriz ere festak berreskuratzeko as-moa.




Itxune taberna, Ormaiztegin

Itxuneko nagusia, Agustin Galabide, urte askoan itsasoan ibilia da. Munduan zeharreko portuetako tabernak ezagutzeke aukera izan zuen eta EEBBetan zenbait tabernetan zuzeneko musika jotzen zutela ikusi zuen. Euskal Herrian ere funtzionatu zezakeelakoan, Itxune tabernan, bide horri ekin zion, orain 10 urte. Gazteei begira lan egiten du Agustinek.

Hasieran, jangelan, larunbatero, Javier Arrillaga bakar-laria izaten zen. Gero, musika, jangelatik tabernara ateratzea pentsatu zuen. Urtean 18 bat kontzertu izaten ziren azke-naldian, ostiraletan. Hasten ari ziren musika taldeentzat pla-za izan da Itxune. Taberna handia izateak eragin handia izan zuen taldeen artean.

Agustinek aitortu digunez, ostiralero-ostiralero kontzer-tuak emanez gero, jendeak ez du hainbeste estimatzen. Be-raz, momentuan utzi egin ditu ostiralero kontzertuak. Ur-tean, data seinalatueta, bizpahiru kontzertu eskainiko ditu, batez ere, trikitixa-pop musika motakoak. *"Tarteka eginez gero gehiago estimatzen da"*.

Ostiralero jarduna utzi eta larunbatera pasatu du Agustinek festa. Jangelaren filosofia aldatu eta gazteei zu-zendutako menuak (plater konbinatuak, menu sinpleak...) prestatzen dituzte orain. Izugarrizko arrakasta izan omen du. Afalondorenean, karaokea izaten da. *"Kosta egiten zaie gazteei kantatzen hastea, baina mikroa pasatuz gero, ba-tzuk behintzat ahaztu egiten dira mikroa ondokoari ema-tea"*.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

SEGURA

Konzentrazioa eta bideoa

Gaur, otsailak 12, nazioarteko tortura egunaren bezperan, torturatuak izan ziren Iruñeako bi gazteri buruzko bideo emanaldia eskainiko da kultur etxean gaueko 10etan. Aurrez, arratsaldeko 8etan konzentrazioa izango da plazan.

Idazlanetan sarituak

Beasaingo euskara batzordeak antolatutako IX. Beasain Idazlan Lehiaketan, bi herritar izan dira sarituak. Olerkian, 17-18 urtekoen modalitatean Irati Errezolak 2. saria jaso du 'Haize arrotz' lanarekin. Prosan, 13-14 urtekoetan Anaiz Goiak 3. saria eskuratu du 'Ametsen bidea' lanarekin.

Kirol eskolarra

Idiazabalgo krolean 30 herritarrek parte hartu zuten. Garbiñe Etxezarretak 2 kilometroko distantzian 2. egin zuen neska kadeteetan. Borja Gereñu 500 metroko distantzian 5. geratu zen mutil benjaminetan.

Otsailaren 14an denboraldiko 5. mendi irteera



Dantzarako beroketa saioak

Eskolak antolatutako dantza ikastaroan ari diren talde gazteeneko 5 urteko 11 umeak era honetan ari ziren beroketa saioak egiten pasa den ostiralean saioan hasi aurretik. Gainerako taldeetan, 6tik 8 urte bitarteko 9 lagun ari dira eta 9tik 11 urte bitarteko 11.

Herri Eskolaren V. kultur astean

Eskola eta herriaren arteko lotura sendotzea helburu izanik, Laiotz Herri Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek ondorengo egitaraua prestatu dute otsailaren 16tik 20ra:

Asteartea 16: Inauteri eguna. Goizean, 'Herensugea' izeneko txotxongilo emanaldia kultur etxean. Arratsaldeko 3etan, **mozerro kalejira.** Ondoren, haurrek herritarrei eskainitako jaialdia plazan. Txokolate janarekin amaituko dute.

Asteazkena 17: Antzerki eta abesti jaialdia. Zegama eta Zeraingo haurrei eskainia, 15:00etan Aterpetxean, 8 urte-tik gorakoentzat. Bitartean, Peio Añorga ipuin kontalaria goiko eskolaletako liburutegian

3tik 7 urte artekoentzat. Arratsaldeko 7etan, Peio Añorgaren **hitzaldia** ('Irakurzaletasuna indartzeko bide batzuk') kultur etxean.

Osteguna 18: Antzerki eta abesti jaialdia. Haurrek gurasoei eskainia, 15:00etan Aterpetxean. Ondoren, Musika Eskolakoen eta Kriseilu taldekoen **musika emanaldia.** Arratsaldeko 7etan, haurren heziketari buruzko **hitzaldia** eskainiko du Olga Padró herritarrek kultur etxean.



Ostirala 19: Haur jolasak. Arratsaldeko 2,30etik 4,30era, 3tik 7 urte artekoentzat beheko eskoletan eta gainerantzekoentzat goikoan. Ondoren, **buruhandi eta erraldoiak** herrian zehar.

Zapatua 20: Kirol ekitaldiak. Goizean, kirol eskolarrean dabilzanen emanaldiak Baratzte frontoi inguruan. Ondoren, **dantzari txikien saioa eta mokadutxo** beheko eskoletan. Arratsaldean, **Kiki, Koko,**

Moko eta Flax pailazo nafarren ikuskizuna Baratzte pelotalekuan. Gaueko 10etan, **Azpeitiko antzerki taldearen antzezpena** Baratzte pelotalekuan.

izango dute. Goizeko 8,30etan plazatik irtenda, Uzturre mendira joango dira.

Bola Seguran

Antolatu berri den Goierriko bola txapelketaren lehen

saioa Txoritegi bolatokian jokatu da otsailaren 13an, goizean 11etatik 12etara eta arratsaldean 16:30etik 17:30era.

Pelota

Gipuzkoako federaziotik kanpo sortu den klub arteko koordinadorak antolatuta kadete, jubenil eta senior mailako Gipuzkoako txapelketa hasiko da ihauteri ondorengo astean. Kadeteetan, Garikoitz Oiarbidek Soralezko taldearekin jokatu du. Jubeniletan, Katalina-Mendizabal (idiazabalarrak) eta Inge Olano-Galarra (lazkaotarra) arituko dira. Seniorretan, berriz, Alfaro (Iparraldekoa)-Ibon Etxeberria eta Castellanos (altzatarra)-Jon Ander Hombre. Txapelketako lehen sailkatuek Intxaurrendoko torneoan parte hartuko dute.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Hamaikak-bat 0-2 Segura. **Jubenilak:** Urola 3-0 Segura. **Kadeteak:** Aizkorri 2-2 Euskalduna. **Infantilak:** Aizkorri 0-8 S.Herrera.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Aldapetarrak, zapatuan, 16:00etan.

Labur-labur

● **Zeles Sodupe** herritarrek 160 partehartzailetatik 30. postuan amaitu zuen otsailaren 7ko Ezkio-Itsasoko Euskal Herriko kros txapelketan beterranoen mailan.

● **Iparra-Hegoa.** Martxoaren 8tik 14ra burutuko da Seguran 'Iparra-Hegoa' ren 5. edizioa. Hurrengo alean informazio gehiago.

Joseba Telleria

LAZKAO

Lazkaoko historia eta toponimia aztergai



Herriko historia, toponimia eta kartografia aztertuko dira. Toponimi azterketan J. M. Aranbururen laguntza izango dute.

Udalak bultzaturik eta hartzarmen desberdinei esker, abian jartzekoak dira aurki Lazkaori buruzko bi lan. Lehenengoa, Lazkaoko historiari buruzko lan bat izango da, eta bigarrena, Lazkaoko toponimia eta kartografiari buruzkoa.

Historiari buruzkoa egiteko, Donostiako E.U.T.G.-ko Filosofia eta Letra Fakultatearekin hartzarmen bat sinatzeaz dago. Fakultate horretako ikasle bat izango da lanaren egilea, beka bat eskainiko zaiolarik eginkizun hau burutzeko.

Betebehar hau bere gain hartzen duen ikasleak, lehen bi edo hiru hilabetetan datu pilaketa eta hauen azterketa sakon bat egin beharko du. Jarraian, datu hauek ondo aztertu ondoren, erabakiko da Lazkaoko historiari buruzko lan hau egiterako orduan, zein ikuspuntu jorratu beharko diren eta zein gaiei emango zaien garrantzia, hau dena eskuratzeko diren datuen arabera.

Bigarren lana ere, Lazkaoko toponimia eta kartografiari buruzkoa, hain zuzen, martxan jartzekoa da aurki. Lan hau burutzeko, Eusko Jaurlaritzaren subentzio bat lortu da eta horri esker eramango da aurrera. Azterketa hau egiteko prozedura erabat desberdina izan da aurreko lanarekin alderatuz, izan ere, lan honen egilea aukeratzeko orduan lehia-keta bat egin zen, bertan, Ikermap enpresari egokitu zitzaizkion lana burutzea.

Lazkaoko toponimiari buruzko datu pilaketan orain arte lan asko egin duen Joxe Mari Aranbururi laguntza eskatu zaiola ere aipatu beharra dago, eta honek ahal duenean laguntza eskaintzeko konpromezua hartu du.

Kultur taldeei diru laguntzak

Lazkaoko kultur taldeei, 1998. urtean egin duten lanaren ordainetan, ondorengo diru laguntzak eskainiko dizkie Udalak.

Antzar Gazteak txaranga: 152.334 pezeta.
Antzar Gazteak txistulariak: 152.334 pezeta.
Oin Arin dantza taldea: 152.334 pezeta.
Txistulariak: 82.696 pezeta.
Abesbatza: 97.929 pezeta.
Azki: 71.331 pezeta.
Goierriko Euskal Eskola: 204.819 pezeta.

Bai Euskarari

Euskararen Kontseiluak bultzatuta aurrera darrai Bai Euskarari kanpainak. Kanpainaren bigarren fasean, Lazkaoko Ikastolako ikasleek, ikastordu bat eskeini zioten euskerari. Ikasle Abertzaleak eta Kontseiluak bultzatutako inizatiba honen bidez Lazkaoko plazan bilduta egon ziren 60 ikasle inguru joan den otsailaren 5ean.

4.879 lazkaotar

1997 urtean baino 19 lagun gutxiagok amaitu dute 1998. urtea gure artean. Nahiz eta jaiotakoak hildakoak baino gehiago izan, lazkaotarren kopurua gutxitzen doa pixkanaka.

Hauek dira 1998. urteko datuak. Herrian enpadronatu diren pertsona berrien kopurua 129koa da, hauetatik 45 jaio berriak dira, 78 kanpotik etorritakoak eta 6 lagun lehendik enpadronatugabeak. Herritik joan zaizkigunak, berriz, 148. Hauetatik 40 hildakoak dira

eta 108 herrian baja eman dakoak. Ikus dezakegunez, 19 lagun gutxiago denera, eta beraz, 4.879 lazkaotar.

Santa Ageda

Aurten ere hainbat talde izan dira Santa Ageda bezperan kantuan atera direnak. Hauetako batzuk Lazkaomendin aritu ziren koplari eta guzti. 16 lagun inguruko taldea izan zen, hain zuzen, Lazkaomendiko giroa berotzen ibili zena, talde hau, Jon Agirre koplariak eta Amaia Zubeldia tritilariak lagundurik aritu zen. Arratsaldeko giroa animatuz, abesbatzako talde bat eta ikastolako gazteak ere kalera irten ziren santaskean jarduteko.

Labur labur

● Hasi dira jadanik Sanprointzio jaiak antolatzen bilerak. Bilerak eginak daude jada udal ordezkari eta elkarte desberdinen artean, baita udala eta gazteen artean ere. Oraindik ere gehiago izango dira eta hemendik animatu nahi zaituztegu parte hartzera. Koadrila guztiak deialdi bat dute adibidez otsailaren 26an beste bilera bat egiteko.

● Administralari lanpostu bat betetzeko eskaintza egitea erabaki zen urtarrilaren 28ko plenoan. Argibide gehiago Gipuzkoako Bolelinean argitaratuko dira.

Urko Irastorza



AUSO EGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



BEASAIN

Senideak-ek hausnarketa taldea eratu du

Urtarrilaren 30ean Senideak-ek (Presoen sendiarteko-
en elkarte) antolatuta haus-
narketa eguna egin zen
Udaletxeko Batzar aretoan.
Deialdira 30 bat lagun ger-
turatu ziren euskal presoen
egoera aztertu, 1998ko urte-
aren balantzea egin eta au-
rrerantzean presoen alde zer
ekitaldi egin daitekeen pen-
tsatzeko.

Arratsaldeko 4,30etan
hasi zen bilera Mixel Sa-
rasketa preso ohiaren ingu-
ruan egindako bideoa ikusi-
ziz. Ondoren egindako
hausnarketan horrelako bi-
leren jarraipenaren garran-
tzia azpimarratu zen. Batez
ere, gonbidapena luzatu on-
doren herriko zenbait arlo-
tako jendea bertan ez zego-
ela ikusi eta gero. Horrega-
tik, bilera aurrerantzean
maiz egiteko asmoa azaldu
zuten Senideak-ekoek.

Hausnarketa taldearen
barruan lan taldea osatu
zen. Talde txikiagoa izango
da, eta ostiralero bilduko
da. Lan talde horren zeregi-
na kontaktuak egitea izango
da, eta gero horien berri
hausnarketa taldeari eman-
go diote. Talde horietatik

aurrerantzean euskal preso-
ak herriratzeko ekimenak
aterako dira. Hausnarketa
taldean bota ziren ideien ar-
tean, agian herriko festeta-
ko hainbat ekimen presta-
tzea proposatu zuten.

Beasaingo Senideak-
ekoek 1998. urteko balan-
tzea egin ondoren, sakaba-
naketa politika azken urtee-
tako ibibide berean manten-
tzen dela salatu zuten:
"Nahiz eta egitura politiko-
an aldaketak eman diren
errepresioak jarraitu egiten
du. Kasu batzuetan gainera
egoera okertu ere egin da".
Urria hasieran Espainiako
Gobernuak preso gutxi ba-
tzuekin egindako gerturake-
ta, itxura besterik ez zela
gaineratu zuten Senideak-
ekoek.

Hala ere, Beasainen
abenduarien 31n egindako
manifestaldiaren emaitza
ona izan zela ere azaldu zu-
ten. "Jende kopuruaren al-
detik positiboa izan zen,
baina batez ere ikustera
ohituta ez gauden jendea
bertan ikusi genuelako. Ma-
nifestaldi plurala izan zen".

Jon Ordoñez Garmendia



Gaur egun sei beasaindar daude preso. Horietatik bik beren
zigorraren 3/4a beteta dutela kalean behar lukete: Jokin Al-
danondok eta Txemi Arteagak. Horiez gain, 1998ko uztai-
lean Egin egunkariaren itxiera ekarri zuen operazioan Ra-
mon Uranga beasaindarra ere atxilotu zuten, baina bere
osasun egoerak txarrera egin eta koman sartu ondoren bal-
dintzapeko askatasuna eman zioten.

- Jokin Aldanondo: 1986ko atxilotu zuten. Orain Burgose-
ko espetxean dago, herritik 500 kilometrora, eta trasladatua
izango denaren mehatxupean. Urtarrilean bete zituen zigo-
rraren 3/4ak.

- Txemi Arteaga: 1993ko abuztutik espetxeratua. Kale bo-
rrokan parte hartzeagatik jarri den hirugarren zigor gogo-
rra jaso zuen: 10 urte, hilabete bat eta egun bateko espe-
txe zigorra. Albaceteke espetxean dago orain. Joan den ur-
tarrilean bete zituen zigorraren 3/4ak.

- Josu Lopez Castañares: 1994tik dago Osnyn (Frantzia)
espetxeratua. Beasaindik 2.000 kilometrora.

- Jabier Irastorza: Fresneseko (Frantzia) espetxean dago
1996tik, Juan Mari Insausti dagoen solairu berean.

- Mikel Azurmendi: 1998ko martxoan atxilotu zuten. Alca-
la-Mecoko espetxean dago orain, Euskal Herritik 1.000 ki-
lometrora.

Lorcari omenaldia

Teatro El Cruce antzerki
taldeak Federico Garcia
Lorca poeta granadarrari
omenaldi berezia egingo
dio gaur, otsailak 12,
22:15etik aurrera Usurbe
antzikian 'Maria Sarmien-
to' lanarekin. Ironiaz eta
umorez betetako lana da.
Lorcari eskainitako antzez-
lana da, asko maite baitute.
Ernesto Caballero 'Maria
Sarmiento' lanaren egile eta
zuzendariaren hitzetan, or-
dea, "Informazio eta Turis-

mo Ministerio berrien" lelo
bihurtu den lorkismo ofizia-
letaz ezin dezakete maite
dutenik esan.

Bestalde, hilaren 19an,
Usurbe antzikian, Jabier
Merkaderren zeramika era-
kusketaren inaugurazioa
egingo da 19:00etan.

La Sallek 90 urte

Beasaingo La Salle ikaste-
txeak 90 urte bete ditu. Ho-
ri dela eta, otsailaren 6an,
Loinazko San Martin egu-
nean, festa ospatu zuten.

Ikasle ohiak, gurasoak eta
ikasleak bildu ziren bertan
ikastetxea bisitatu eta ha-
maiketako egiteko.
1909ko otsailaren 8an hasi
zen La Salle klaseak ema-
ten.

Inauteriak

Bihar, otsailak 13, herriko
kaleek inauteri giroa izango
dute. Ostadar Dantza Talde-
ak antolatuta, Lantzeko
inauteriak eta Luzaideko
bolantak izango dira aurren
protagonista. Ostadarrek

inauteria antolatzen duen
zazpigarren urtea da aurren-
goa, eta Nafarroako bi herri
horien soinuak entzun eta
dantzak ikusteko aukera
izango da.

Bi desfile egingo dituzte
kaleak girotu eta inauterien
izaera zabaltzeko asmoz.
Goizean eguerdian hasiko
da, eta arratsaldekoa
6,30etan. Bietan ere 60 bat
dantza ikusi ahal izango di-
ra, eta txaranga baten doi-
nuarekin ekingo diote dan-
tzari.

ATAUN

Doinu zaharrak berri

Arg.: Marron



Joan deneko 32-34 urtetan entzuten ez ziren doinuak entzun ahal izan ziren Santa Ageda bezpera eta egunez, Hergone eta Aian. Joxe Bikuña koplari zutelarik eta, Amaia Zubiria abeslaria tarteko, hor ibili zen dozena bat lagunekoa koadrila santa-eskean. Luze joan bazen ere, oso harrera ona jaso zutela esan digute eskean ibili zirenek. Eta horrek datorren urtean herri guztira zabaltzeko dituzten asmoak indartu dituela. Dena den, San Martin eta San Gregorion ere izan genuen, urteroko legea, koplak "berriak" entzuteko aukerarik.

Udalaren aurkako epaiketa

Otsailaren 4an Donostiako Entzutegi Probintzian egin zen Aitor Auzmendi alkatearen aurkako epaiketa, ejerzito espainiarrari "laguntza ukatzearen" salaketapean. Duela hiru urte, 1979.enean jaiotako ataundarren zerrenda emateko Espainiar ejerzitoak egin zion

eskaerari, udalak, ahobatez, ezezkia erantzun zion. Eta horregatik, fiskalak 3 hilabetez egunero 500 pezetako isuna eta 6 hilabetez ardura publikoan aritzeko debekua eskatu du.

Aitor Auzmendi, euskaraz eta itzultzailearen bitartez, "alkate naizen momentutik herri bati zor naitaio eta bere udalbatzak ahobatez instituzio militarrekin ez kolaboratzeko hartutako erabakiari. Ezin dut onartu ordezkatzeko dudak herriarekiko inposaketarik", adierazi zion epaileari. Ejerzitoak "herri egituraren balorerik ezkorrenak" biltzen dituela bere baitan eta gizarteak aldez, "giza baloreetan oinarritutako gazteen heziketari" heldu behar diola esan zuen Aitorrek.

Hau halere, ez da Ataungo alkatea epaitegira deitzen duten lehen aldia. 1997. urtean arrazoi beragatik izan zen epaitua, baina kasua artxibatu egin zuen epaileak. Donostian izan ziren udale-

an ordezkariak duten alderdi guztietako bozeramileak beren testigantza ematen. Herriar eta lagun ugari ere bildu zen.

Eliza obratan

Jadanik herriar gehienok konturatuko zinetenez, hasiak dira San Martingo elizaren berritze lanak. Teila-tuaren konponketaz gain, kanpandorrean hainbat zuzenketa egin, paretak garbitu eta erloju berria jartzeko plangintza egin dago.

Hau guztia burutzeak suposatzen duen dirutza handia izanik, 36 milioi, (haue-tarik 20 milioi Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko diru laguntza eta 4 milioi gutxi gora-behera elizbarrutrikotik diru laguntza), Parrokiako Batzordeak kanpaina jarria du herrian diru kopuru horren zati bat, 12 milioi, biltzeko asmoz.

Lerro hauen bitartez, beraz, Parrokiako Batzordeak dei berezi bat luzatzen di-zuete zuen diru laguntza emanez lagundu dezakezuen guztioi. Horretarako Gipuzkoako Kutxako kontu zenbaki honetan sartu behar da: 2101. 0026. 99. 000079846.2. Informazio gehiago jasotzeko, dei 943180024 telefonora.

Talo ikastaroa

Aurtengoan berrikuntzak datozkigu eskola aldetik. Urtero bezala talo-jana anto-latu badute ere, talo goxoak

jan aurretik egin egin behar direla eta, hutsune hori bete-zeko asmoz aurtengo talo ikastaroa antolatu dute otsai-laren 15 eta 18an, arratsaldeko 4,30etatik 6etara. Ikas-taroa Arantxa eta Zezik emango dute eta 500 pezeta kostatuko da. Haurtzaindegi zerbitzua ere izango da bai-na horretarako J.M. Barandiaran eskolan izena emate-rakoan adierazi behar da.

Labur-labur

● Talo-jana otsailaren 20an izango da iluntzeko 8etan, baina txartelak otsailaren 15a baino lehen erosi behar dira. Txartelak eskolan egongo dira salgai 1.600 pezetan helduentzat, 1.200 pezetan bakarrik doazen 16 urtez azpikoentzat eta 700ean gurasoekin doazen 12 urtez azpiko haurrentzat. Lortzen den dirua ikasturte bukaerako irteerarako erabiliko da.

● Hiru heriotza izan ditugu herrian bi asteren buruan: Auzmendiñeko Lutxi Galparsoro, Zaindingo Inazio Auzmendi eta Aitzio Inazio Barandiaran. Doluminak sendiei.

● Otsailaren 8tik 19ra HBK herriko tabernetan buzoiak jarri ditu bertan legealdi honen zure balorazioa, datorre-nerako proposamenak eta zerrendaburu eta zerrenda-gaien izenak "bota" ditzazu-n.

Agurtzane Bikuña

ILEPAINDEGI MISTOA

✓ **Solarium** 4.500 pta.
10 saioko bonoa

✓ **Depilazioa**

✓ **Kolore eta permanenteak**,
astelehen, astearte eta
asteazkenetan %5eko
deskontuaz

Lutxeko
Bikaratu, 30 - BIKARATU
883486



VIA

Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4 ☎ **88 86 84** **BEASAIN**

ORDIZIA

150.000 pezeta muslari onenarentzat

Argi Berri Elkarteko XXII. Mus txapelketa Azkarra irabazten duen bikotearentzat izango dira 150.000 pta. eta txapelak. Aurreko alean azaldu genizuen bezela, otsailaren 13an, larunbata, jokatu da txapelketa eta izenak arratsaldeko 4:15etarako emanak egon beharko dira. Urtero-urtero ehun bikote inguru elkartzen dira Bustuntzako Argi Berri Elkartean (127 izatera ere iritsi dira) eta bikoteko 4.000 pta. ordainduta sekulako sariak eramango dituzte lehen sailkatuek. Jokuak 4 erregetara eta 6 hamarrekoko 3 usteletara izango dira, galduz gero kanpora.

Sailkapeneko 5 lehenengoek dirua eramango duten bitartean, arkumea, opari estutxeak eta ardo estutxeak izango dituzte zain 6., 7. eta 8. sailkatuek. Herriko bi lehenengo bikotearentzat bi txuleta izango dira, auzoko lehenengo bikotearentzat bi txanpain botila eta Elkarteko lehen bikotearentzat urdaiazpiko bat.

Argazkian ikus daitekeen moduan, lehen kanporaketak Urdaneta Ikastetxeko geletan jokatzen dira eta amaierakoak Argi Berri Elkartean bertan. Aipatu Goierriko musulniez gain Donostialdetik, Tolosalde-tik, Zarauztik, Azpeitiatik eta baita Lizarragatik ere etortzen direla bikoteak.



Partehartze handia izaten da Argi Berri antolatzen duen mus txapelketan. Sariak ere handiak izaten dira eta Goierritik kanpoko jende asko etortzen da.

Iazko irabazleak Nafarroako Intza herriko Patxi Otegi eta Eugenio Estanga izan ziren.

Alkateak lan berria

Ia 8 urtez (4 hilabete falta dira osatzeko) herriko alkateak, Juanbi Erauskinek, lan berria izango du. Eusko Jaurlaritzan lanean hasi da, Garraio azpiegituraren zuzendaria izendatu baitute eta honek alkate bezala egiten zituen lan guztiak egiteko denbora liberrik ez lioke utziko. Beraz, orain arte egun osoz jardun badu lanean, legegintzaldia amaitu bitartean, astean bi egunez arituko da udaletxean.

Inauterietan moztarro lehiaketa

Ordiziako Tabernarien Elkartek antolatuta II. Moztarro Lehiaketa izango da da-

torren otsailaren 13an. Iaz izandako esperientzia positiboaren ondoren, aurtengo antolatzea erabaki dute eta sari bikainak izango dira moztarro onenentzat. Banakako moztarroei dagokienez 5 sari: 30.000 pta., 20.000 pta., 10.000 pta. eta bi afari. Taldeko moztarroentzako are sare bikainagoak oraindik, irabazleek 100.000 pta. eskuratuko baidituzte. 40.000 pta., 20.000 pta. eta beste bi afari ere zain izango dira.

Puntuaketa iazkoa bezelakoa izango da, hau da, Ordizian Elkarteko taberna edo jantoki bakoitzak maila bakoitzeko 5 moztarro onenak aukeratu dituen ondoren guztiak elkartu eta puntu gehien lortu dituen moztarroak jasoko du saria.

Alboka-Titin

Lazkaoko Alboka Tabernak eta Ordiziako Titin taldeek neurtuko dituzte indarrak larunbatean, hilak 13, Majori Kiroldegian. Aurtengo eskualdeko futbito txapelketari amaiera emango dion neurketa izango da berau. Finalera iristeko Juntxo Taberna utzi zuen kanpoan Titinek 5 eta leko emaitzaz eta Albokak, berriz, emaitza berdinarekin Urbitarte Sagardotegia menperatu zuen. Finala, beraz, eguerdiko ordu batean izango da Majorin eta aurretik 3. eta 4. postuak erabakiko dituen norgehiagoka jokatu da.

Futbola

Eta futbito txapelketa bukeran den bitartean anexokoa hastear dago. Lehen bilerak egin ondoren 16 taldek eman dute izena, larunbat arratsalde eta igande goize-tan futbol ikuskizuna eskaintzeko asmoz. Antolaketan lanak egitea Bustunmira eta Vicuña Sport taldeei egokitu zaie aurtengo. XX. Txapelketa izango da hemendik aurrera jokatu dena eta ziur azken bi urtetako txapeladuna den Tximista Sagardotegia hirugarrenaren bila irtengo dela. Lehen neurketak otsailaren 20an izango dira.

Aitor Calvillo



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa

OLABERRIA

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ZEGAMA

Gaur inauteri festa herrian

Gaur, otsailak 12, inauteriak ospatuko dira herrian. Arratsaldeko lehen partean Aitxuri Herri-eskolako haurrek egingo dute beraien irteera moxorroturik. Ondoren, arratsaldeko 4etan, Guraso Elkarteak txokolatea banatuko du eta herriko zenbait gaztek jokoak egingo dituzte haurrentzat. Ondoren buruhandiak izango dira. Gaueko 9etan urtero bezala afaria egingo da Udal pilotalekuan eta dantza lehiaketan aurten ere sari ederrak izango dira lehen bi bikoteentzat. Kultur Etxeko batzordeak ere txokolate beroa eskainiko du bertaratuentzat.

Egur tailaketa ikastaroaren arrakasta

Hogeitalau pertsonen izena eman zuten egur tailaketa ikastaroan parte hartzeko. Jabier Arrietaren zuzendaritzapean Zegamako eta inguruko herrietako zenbait ikasleek egurra lantzen ikasiko dute. Talde baterako gehitxo izanik bi taldetan banatu dira ikasleak. Talde-

ko 30 ordu emango ditu, hala eta guztiz ere, tailerrera astean zehar joateko aukera dute ikasleek beren lana aurreratzeko asmoz. Bigarren taldea apirilean hasiko da martxan.

Bideo emanaldiak

Guraso Elkarteak antolatutako, otsailaren 14an, 'Tres Hombres y una Dama' pelikula botako da Kultur Etxean. Otsailaren 21ean, berriz, 'Solo en casa 3'. Bideo emanaldi hauek arratsaldeko 5etan izaten dira, Kultur Etxean.

Abesbatza kontzertuak

Otsaileko azken hamabostaldia aberatsa izango dugu musika aldetik herrian. Izan ere, datorren otsailaren 20an, iluntzeko 8etan, Zarauzko abesbatza izango dugu San Martin Parrokian. Otsailaren 27an, berriz, Ezpeletako abesbatza izango dugu gure artean iluntzeko 7,45etan.

Ezpeletako abesbatza, Orkatz abesbatzarekin egin duen trukaketa dela eta



Arbasoen ildotik

Joxe Alustiza zegamarra izan zen Aitxuri Herri-eskolan aintzinako ipuinak eta ohiturak kontatzen. Lehenengo mailatik hasi eta seigarren maila arteko ikasleak baba dariola egon ziren Joxek esandako kontuak entzuten. Galdera ugari egin zizkieten ondoren, lehenengo ohiturei buruz.

Tartaloren istorioa izan zen horietako bat eta Alberto Aierberen laguntzarekin Trokamuinotaraino joan ziren 9 urtetik gorakoak bere aztarnak bilatzera. Bidean nahiko lokatza aurkitu arren trikuharriak ikusteko aukera ederra izan zuten eta era berean, zuhaitz eta belar mota desberdinez informazioa jaso zuten.

izango dugu gure artean.

Aizkorri F.K.aren partidukoak

● Ohorezko infantilen maila: **Otsailak 21:** Lengokoak S.D. - Aitzgorri F.K. **Otsailak 28:** Aitzgorri F.K. - Sto. Tomas Lizeoa.

● Kadeteen maila: **Otsailak 21:** Ordizia - Aitzgorri F.K. **Otsailak 28:** Aitzgorri F.K. - Urnieta.

● Alebinen maila: **Otsailak 21:** Aitzgorri F.K. - Tolosa.

Eduarne Albizu

EZKIO-ITSASO

Otsailaren 7an Alegi auzoan Euskadiko kros txapelketa izan genuen. Azkenaldi honetan harturiko ohiturari jarraituz, euria ere protagonista bihurtu zitzaigun ibilbidea lokaztuz.

Euskal Telebistak zuzenean eskaini zuen ekintza honen antolaketa oso ona izan zela esan behar. Ezkio-Itsaso bezalako herri txiki batentzat ez da erraza milaka pertsona erakartzen di-

Euskadiko kros txapelketa arrakastatsua

tuen horrelako ekintza bideratzea, baina oraingoan, herriarren laguntza paregabearekin, onenen mailan izan da gure herria.

Goizeko 9,30etan hasi eta eguerdiko 2,30etan amaitu zen ekintza honen partaidetza oso zabala izan zen. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik 1.036 korrikalari iritsi ziren, 8 maila ezberdinetan banaturik.

Froga nagusiari dagokionez, emakumezkoen mailan Kristina Petite bizkaitarra izan zen lehena helmugan. Gizonezkoen dagokionez, Andres Perez nafarra izan zen garaile.

Ezin ahaztu guztien artean Ezkio-Itsasoko bi partaide izan genituela lasterketan. Promesa mailan aritzen diren Eneko Zabaleta eta Josu Ibarguren onenen artean izan genituen. Bien las-

terketa bikaina izan bazen ere, Eneko Zabaleta bere mailan Euskadiko txapel-dun ordea izan zela azpimarratu behar.

Azkenik, txapelketa honen antolatzailerekin eskerrik beroenak eman nahi dizkie ekintza honen antolaketan parte hartu duten guztiei eta bereziki Ezkio-Itsasoko herriar guztiei.

Joseba Etxezarreta

ZALDIBIA

Eskribau-etxea, agur!



Dagoeneko bota dute Eskribau-etxe izenez ezagutzen zen eraikina, eta berehala hasiko dira bertan egin behar dituzten etxeak eraikitzen. Guztira bost solairu izango ditu etxe honek: sotoa(lurpean), lokalak, eta bostna etxebizitzatako hiru solairu. Klemente Lasa herritarra izan da eraikuntza honen diseinua egin duena.

Ikastaroa

Defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du udalak herriko heldu nahiz haurrentzat.

Matrikula 2.000 pezeta kostatuko da helduen kasuan eta 1.000 pezeta haurrei dagokienean.

Ordutegia berriz ondorengoa izango da: **-Heldue-na:** otsailaren 27an eta martxoaren 6an eta 13an, goizeko 10etatik 13etara. **-Haurrena:** otsailaren 23an eta 25ean, eta martxoaren 2an, 4an eta 11n, arratsalde, bi orduko saioak. Interesatuak izena kultur etxean eman dezakete (telefonoa: 943160338).

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga pelotan txapeldun

Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako finala irabazi berri dute Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga herritarrek.

Iaz kadeteetako Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten bi gazte hauek 22-16 gailendu zitzaizkien 'Añorga' klubeko Garikoitz Erroizenea eta Andoni Larrarteri, urtarilaren 30ean, Zumarragan, jokatu zen jubenilen mailako finalean.

Aratz eta Ibonek 'Real Sociedad' klubaren izenean jokatu zuten.

Beraien maila bikainaren adierazgarri da dagokien baino maila altuagoan jokatzeko dutela, kadeteak izan arren, jubenilen mailako txapela jantzi baitute.

LEGORRETA

Zinema erosi du Udalak

Udalak herriko zinema erosi dio Parrokiari 19 milioiren truke. Parrokiko batzordeak elizako obren kostua ordaintzeko erabiliko du diru hori. Batzorde honek 94.575.683 pezeta jaso baditu ere diru iturri ezberdinei esker, oraindik ere 17 milioitik gorako zuloa bete beharko du kostu guztiei aurre egiteko.

Pako Eskitxabel

Cordoban preso dagoen Pako Eskitxabel itzuli zen berriro herrira bere amaren heriotza zela eta. Pakok 18 urtetik gora daramatza preso eta bere zigorraren 3/4 bete badu ere, oraindik kar-

tzelan jarraitzen du. Une gogorak bizi izan arren, familiakoekin eta lagun zaharrek egoteko aukera izan zuen Pakok.

Santa Ageda bezpera

Aspaldiko usadioei jarraituz, aurtengoan ere Ugao herri ikastetxeko haurrak kantari ibili ziren herrian zehar.

Bilkoin, Jota-Kea

Bilkoin eta Jota-Kea elkarrekin ekintzez batera bi asteburu bizi izan dituzte. Urtarilaren 31n, beraien egun handia ospatu zuten trikitilariak alaitutako bazkari

eder batekin. Bertan toka eta mus txapelketako sariak banatu ziren.

Sailkapenak:

Tokan: Bixente Esnal lehenengo, Manuel Moron bigarren.

Musean: Santos Esnaola-Pako Goikoetxea lehenengo, Jokin Iriondo 'Bixki'-'Taxi' bigarren.

Aste bete beranduago, Jota-Kearen txanda iritsi zen. Urteroko batzar nagusiaren ondoren, bazkari eder bat dastatzeko aukera izan zuten kideek. Bertan bezperan jokatu toka eta mus txapelketetako irabazleei sariak eman zitzaiz-

kien. Sailkapenak:

Tokan: Irabazlea Joxe Antonio Lasa eta bigarren Eloy Alvarez.

Musean: Lehenengo Joxean Irastorza-Jabi Diaz bikotea eta bigarren Jose-Jose Mari.

Jubilatueneko taberna

Udalak deituriko lehiaketa publikora bera bakarrik aurkeztu eta baldintza guztiak betetzen zituen, Marijo Irastorzak jarraituko du Jubilatueneko tabernarekin, hilero 105.000 pezeta ordainduz.

Josune Amondarain

IDIAZABAL

Sanblasak eguraldi hotzarekin hasiko zirela iragarri zuten eta hala izan zen. Urta-rrilaren 31n egin zen festetako lehenengo ekitaldia. Herri krosak urteroko moduan kanpoko jende ugari ekarri zuen herrira. Festen atarikoak haurren danborradak osatu zuen.

Asteleheneko tartearen ondotik, asteartean egin zitzaion ongi etorria Axariari. Festen hasiera ofizialarekin batera kandelak bedeinkatzeko modua ere izan zen. San Blas egunean ohiko erroskila bedeinkazioa eta ondoren plazan patatak errioxar erara jateko aukera. Koadrilen egunak sumo ikuskizuna eta Tirri Tarra fanfarrea ere ekarri zituen herrira. Sanblas txiki egunean, Udalak eskainitako hamaiketako eta bertsolariak plazan, Egaña, Lizaso eta Peñagarikanoren txanda izan da aurtun.

Asteburuarekin batera ugaritu zen jende kopurua. Arratsaldean herriko bigarren Mahai Tenis txapelketa jokatu zen, Juan Karlos Insausti izan zen irabazle. Ostiral iluntzeko pilota partiduek kanpotar dexente erakarri zuten. Euskal Telebis-
tak zuzenean eman zituen Aspek antolatutako bi partid-
duak. Herriko frontoia eraber-
rituta ikusteko modua ere izan da beraz festa haue-
tan. Ostiralean partid-
duak bukatuta iritsi zen helduen



XIX. Herri Krosa

Irabazleak: neska benjaminak, Leire Murua (Gabria). Mutil benjaminak, Eñaut Insausti (Ordizia). Neska alebinak, Eneritz Agirre (Tolosa). Mutil alebinak, Gorka Elustondo (Beasain). Neska Infantilak, Miriam Arana (Tolosa). Mutil infantilak, Iñaki Jimenez (Tolosa). Neska kadeteak, Maitane Etxeberría (Beasain). Mutil kadeteak, Xabier Jaurregi (Ordizia). Emakume helduak, Elena Markotegi (Legazpi). Gizon helduak, Mario Lopez (Altsasu). Emakume beteranoak, Arantxa Aldalur (Azpeitia). Gizon beteranoak, Ramon Rodriguez (Zarautz).

Herritarrak: benjaminak, Garazi Dorronsoro, Ioritz Imaz. Alebinak, Aintzane Irizar, Roberto Retamosa. Infantilak, Leire Urteaga, Iraitz Iparragirre. Kadeteak, Leire Garai, Jon Garmendia. Helduak, Aloña Galarraga, Mikel Garmendia. Beteranoak, Lake Oiarbide.

danborrada plazara. Jubila-
tuen taldeak sortu zuen ikus-
mina ekitaldi horretan, kapa
eta kapela beltza jantzita
atera zen 26 lagunek osatu-
tako konpainia.

Larunbat arratsaldean in-
door erako triala ikusteko
aukera izan zen futbitoko
pistan. Motorren hotsak
jende ugari bildu zuen ikus-
kizun horretara. Handik
gertu, pilotalekuan Euska-

diko sokatira txapelketako
kanporaketa jokatu zen.
Frontoia beteta eta lehian
aritu ziren 14 herrietako tal-
deei segika Euskal Herriko
leku guztietako jendea bildu
zen. Tartean herritar bat
zuen Orendaingo taldea lau-
garren geratu zen. Ilutzera-
ko Txomenarenako parkean
iragarrita zegoen txistulari
alardea Zelaako kiroldegian
egin zen eguraldi txarra bi-

Etzegarate

Etzegarateko bikoizketa
hasi dadin eman beharre-
ko urratsak aurrera doaz.
Gipuzkoako Diputazioak
eta errepede berria egiteko
erabiliko diren lurren ja-
beek aste honetan bukatu
dute espropiazio proze-
sua. Hemendik hilabetera
jakingo da zein enpresak
egingo duen bikoizketa.

tarteko, han ere ikusle ugari
bildu zen, Goierriko txistu-
lariak, herriko abesbatza,
Aitor Furundarena, Jesus
Mari Garmendia Euskal
Herriko orkestrako kidea
eta metal boskotea izan zi-
ren bertan besteak beste.

Igandean berriro ere kan-
poko bisitari ugari bildu zen
herrian. Beti Argi bandaren
kontzertua izan zen eguer-
dian. Arratsaldean neska ar-
teko futbito txapelketan he-
rriko lau talde aritu ziren jo-
koan, guztira 20 lagun.
Iluntzean taloa eta sagardoa
doan oraindik ere asetu ga-
be zegoenarentzat.

Igande gauerdian abiatu
zen Axaria herriko plazatik
kanpandorre aldera. Horrela
joan dira aurtengo jaiak,
Kultura batzordeak hemen-
dik egun batzura egingo du
Sanblasen balantze ofiziala.

Xabier Urteaga

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

ANGEL IMAZ

PINTURA
eta
PAPERGINTZA



943 18 70 49

Ondramuño etxea

IDIAZABAL

GAZTE TXARTELAREKIN, % 50eko BEHERAPENA 18-26 URTE BITARTEKOEK:

Antzizar kiroldegia, Goierriko kiroldegia

Azken lau urteotan % 36ko hazkundera izan du Beasaingo Antzizar kiroldegia. 3.700 bazkidetik gora ditu une honetan. Gero eta gehiago dira Beasaindik kanpokoek Antzizar kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzen dituztenak; bikoiztu egin da kopurua. 1998an bazkide berri egin dira. Horietatik % 62a beasaindarra da; % 17a ordiziarrak; % 13 lazkaotarra eta gainerako % 8a eskualdeko beste herrietakoak. Kirolaren Udal Erakundeak zuzendariak, Josi Insaustik, adierazi duenez, "datu hauek kontuan hartuz, Kirolaren Udal Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuak Goierri bailarara zabaltzeko direla esan dezakegu. Beasaindik kanpokoak zerbitzuak hobetu direlako etorri dira, kanpainarik egin beharrik gabe".

1994-1998 bitartean Antzizar kiroldegian egin diren bazkide berrien % 50 emakumezkoak dira. Bazkideen % 39,8 izatetik % 42,5 izatera pasatu da emakumez-



koen portzentaia. Adinari dagokionean, bazkidetzak adin guztietan gora egin badu ere, gorakadarik handiena 26-37 urte bitartekoetan eman da.

Gazte Txartelarekin % 50 merkeago

Lau urteotan Antzizar kiroldegia kirol, zerbitzu eta ordutegi arloan berrikuntzak eskaini ditu. Eta aurtentzen, 1999tik aurrera, beste berrikuntza batekin dator: 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazte guztiek % 50eko dirulaguntza jasoko dute Beasaingo Antzizar kiroldegiko bazkidetzak egiteko orduan. Gazteentzako kirola aisialdi-aukera eta osasun-ohitura modura eta kirol-

praktikan sartzea errazteko egokierak sustatzea du helburu eskaintza honek. Josi Insaustik prentsauraren azaldu zuenez, 18 urterate familiako abonoarekin edo beste abono merkeagoren bat izaten dute. Baina hortik 26 urtera bitartean aukera horiek galdu egiten dira eta zenbait gazte atzera egiten du. Hutsune hori konpondu nahian egin du eskaintza hau Antzizar kiroldegia. "Beasaingo Udala eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak dela medio, gazterien bizimodu-kalitatea hobetu dezakeen orora gazteak hurbilazteko egitasmoa prestatu dugu. Beasaingo Kirolaren Udal Erakundeak Eusko Jaurlaritzak

ko Gazteriko Zuzendaritzarekin elkar hartu ondoren, eskaintza hau hitzarmen baten bidez egin da. Laster argitaratuko den Gidan publikatuko da informazio hori. Gazte interesdunei txartela eta gida emango zaizkie", argitu du Josi Insaustik.

Une honetan Gazte Txartelak ez duenak, otsail erditik aurrera izango du txartel hori eskuratzeko aukera. Antzizar kiroldegia kanpaina berezia egingo baitu. Zehaztasun handiagoz Antzizar kiroldegitik bertatik zabalduko da informazioa, Gazte Txartela noiz eta non egin daitekeen adieraziz.

Kirol inbertsioak legegintzaldi berrian

Aurtengo ekainean izango dira udal hauteskundeekin amaituko da legegintzaldia. Josi Insaustik aurreratu duenez, datorren 4 urteko legegintzaldia, kirol inbertsioetako legegintzaldia izango da. Instalazio berriak egin eta daudenak berritzeko asmoa dago.



Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia,
homeopatia, reflexoterapia podala eta
abarretan aditua

Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala

Kale Nagusia, 8
943 88 13 37
ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 943 889390 BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

943 88 51 68

ORMAIZTEGI

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



Zegamako 48ko kintoak

Sinforo Alzolak utzi ditu argazkia. Zegamako 48ko kintoak azaltzen dira bertan. Jose Aldasoro falta da argazkian.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Ignazio Mendizabal, Jose Urbizu, Sinforo Alzola, Jose Izagirre, Felipe Zabaleta eta Isidro Alustiza.

2. ilaran: Saturnino Arizkorreta, Luis Otaegi, Pedro Berasategi, Jose Aierbe, Jose M. Asurmendi, Pedro M. Arakama eta Roman Goenaga akordeoilaria.

SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua:
AUTOETXE C.B.

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia

BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:

*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN

BEGIRISTAIN

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 19etatik 23etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan enkarguz

☎ **943 65 28 37**
IKAZTEGIETA

AMEB

TXOTX
DENBORALDIA
IREKI DUGU



Sagardotegia

URTE OSOAN
ZABALIK

☎ **943 16 25 23**
Zubierreka, 9
LAZKAO

ZALBIDE SAGARDOEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean
Arraiak parrilan

☎ **943 65 21 76**
ABALTZISKETA

KORTA

Menu berezia 2.200 pzta.
Tortila, txuleta indibiduala, gazta,
menbrillu eta ardo edo sagardoa

☎ **943 88 71 86**
GABIRIA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ **943 88 77 26**
ALTZAGA

Sagardotegia



aulia

☎ **943 80 60 66**

LEGORRETA

OTATZA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 15tik zabalik

☎ **943 80 17 57**
ZERAIN



ETXE-ZVRI
SAGARDOEGIA

☎ **943 88 20 49**

OLABERRIA

TXERTAKADI

- ✓ Sagardotegiko denboraldian zaba-
lik, maiatza alderarte
- ✓ Igande eguerdi eta gauetan zabalik
- ✓ Astelehenetan atsedena.

☎ **943 16 13 59**
ZALDIBIA



TXIMI STA
Sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea
☎ **943 88 11 28**
ORDIZIA

URBITARTE



☎ **943 18 01 19**
ATAUN



ERRETEGIA
SAGARDOEGIA
KATTALIN

Txotx denboraldia zabalik

Antzizar auzoa

☎ **943 88 92 52**
BEASAIN